

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKALERRIAN BARN

UDAKO «EUSKERA» IKASTALDIK

Datorren udarako bi euskeraz irakasteko ikastaroak prestatu dire gure Euskal Herrian. Bata Bilboko Deustuko Unibertsitatean hango «Euskal Kultura Mintegia»-k antolatutako; eta bestea Balonango «Alfabetatzeko Batzorde»-k antolatutako.

Deustuko ikastaroari joatekoan daudenak esan behar dute lau klasetakoak izanen direla, hau da lau ikasturte mailak: Lehenbizikoa: euskeraz hitz egin ez dakitenentzako; Bigarrena: euskeraz zerbait dakitenentzat; Hirugarrena: euskeraz mintzatzen badira ere errezitasun eta dutenak.

tzat; eta laugarrena: Alfabetatzeko ikastaroa, zergatik da sortzez euskaldunak izanik oraindik irakurtzen eta idazten ez dakitenentzat bait da.

Deustuko ikastaroen egunak hauek dira: Uztailaren 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31. Bigarrena: euskeraz zerbait dakitenentzako; Hirugarrena: euskeraz mintzatzen badira ere errezitasun eta dutenak.

Edozein joan daiteke kursoa haurerara. Xeketasunak Deustuko «Euskal Kultura Mintegia»-ri (Deustuko Unibertsitatea) eskatu, edo Euskaltzaindiari (Ribera Karrika, 6, Bilbo).

Bayonako ikastaroaren berri ere errezitasun eta dutenak.

zuzenbide hauetara eska dezake «Alfabetatzeko Batzordea» 32, Rue Bourgneuf C.C.P. Mende berri Bayonne. Hemen ere bi motako ikastaroak emango dira: Euskeraz dakitenentzako eta euskeraz ez dakitenentzat.

EUSKALTZAINDIAREN OHARRA

Euskal Akademiaren Prensako Ofiziararen Agiri bat igorri digu. Hona hemen gaita eta berak esaten diguna: Aditza laguntzailearen batasuna, egi na». Apirilaren 6 eta 7n Euskaltzaindiak bilgura bereziak antolatu ditu: aditza batasun

lana aurrera eramateko. Aditza batasuneko jaunek eta euskaltzain oisek parte hartu dute bilkura hietan. Hango uztailaren egindako jardueren segida izan dira oraingo hauek. Haiek Arantzazu, haiek berriz Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean egin dira. Bilkura hauen ondorioa izan da aditza laguntzaile guztia zuketako formak, buru eman zaila. Beraz, urrats handi bat egin da batasuneko bidean.

Onarturik izan diren aditza formak euskaltzain oso gutxiel (Bilbora etorri diren), eta etortzerik izan ez dutenak) bi daliko zaizkie, oharrek egiteko epe bat emanek. Ohar hoiak jaso eta aztertu ondoren, aditza honen birreforma (ra

tifikazioa) eskatuko zaio Euskaltzaindiari. Birreforma hori iritxi bezain laster, Euskaltzaindiak berak egingo du aditza honen argitaratze ofiziala.

JOAN BAUTISTA GAMIZ ZENA

Arestin Euskaltzaindiak Arabako Sabandoko herrixkan bertako seme eta euskal Cierikari (poeta) zen Joan Bautista Gamiz Jesulagun zenari omenaldi nabari bat eskeinduz.

Joan Bautista Gamiz zena euskeraz idatzitako bertso irakurtariak antolatu zituen bere garaiaren gure arabarra 1696 urteko Apirilaren zortzigarren gure mundura etorri z

traigun, 1773 ko Apirilaren 28 ean Italiako Boloniar hilk aurtent badea bera il zenetik berrehun urte bete izan dira. Arabako Diputazioak Euskaltzaindiaren batesun nahi izan zuen bera laguntza eta kerizpe eman araberat hau goraldu, eta oroitza berharrez. Bera sortu zan herrian oroitari bat jarri zuten euskeraz eta ereraz idatzia.

Arabak euskal idazlariak guk izan badira eren hemen dugu bat eta ongia Arabako seme hontaz oroitzea. Zorion berak Arabako Diputazioaren dako, baita ere gure Euska Akademiarentzako esma tu eta egin dutenagatik.

IKUSLE

AXULAR SARIA

ERDI EROA

elizara eta apezak alde egin zion: —Zenbat denbora da konfesatu zinelaz? —Ez naiz gogoratzen, orain badakizu erdi eroa nelzela ta orregatik ez naiz gogoratzen. Ta apezak erran zion: —Erdi eroa, galxoa ta pekaturik egin duzu? —Ez ba erdi eroa naiz ta. —Erran behar dazut gauz bat, banan dotrina iakin duzu. —Gutxiok ba erran diot erdi eroa nelzela ta. —Bai, bai ta zerbaiz hartu al duzu? Inori zerbaiz kendu al diozu?

—Ez kendu ez, hartu, erdi eroa naiz eta inoren etxean hartu ta neronen etxera eramaten dut. —Al ta zerorren etxean hartu ta bestetren etxera eramatea ez al zaizu in-iz bururatu? —Hori egingo banu ero eroa izango nitzake.

ULIAN ELIZALDE, 12 urte

Arizkun-go Eskolako

IPUINA: HIRU TXERRIENA

Egun batean mendian omen zegoen txabola bat, eta bizi ziran txerriak, beia eta zaldiak.

Atera ziran hiru txerri eguzkia hartzera eta eginzan iluna eta esan zun Putteak:

—Goazen egitera etxeak. Eta esan zun:

—Pittek nik belarrezkoa, Pott ek nik egurrezkoa eta Puttelek nik arizkoa.

Pitt, ek laister bukatu zun eta Pott, ek ere bai, etan esan zioten:

—Aizu Pitt bukatu duzu? —Ez.

Berriz: —Aizu Pitt bukatu duzu. —Bai.

Eta hasiziren joastean. Belaxe ikusi zuten sasi bat multzen eta esan zun. Pitt.

ek: —Ori txakurbat da. —Ez hori kutubat da. Eta Putteak:

—Ez hori otsoa da. Sartu ziran arizko etxean eta eskarrak, otsoa zan.

AITOR MARIÑELARENA-7 urte

Exarri-Aranaz-ikastola «Andemari»

EUSKALTZAINDIA

Joan Bautista Gamiz-en Ospakizunak Araban

Joan Bautista Gamiz arabar olerkariaren berrehungarren urteburua gogoratu, Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra Gasteizen egin zuen, bere Ordezkaritzaan, apirilaren 27an.

Batzarrean gal hauek erabil ziren (har-emanetakoez gainera):

Denda izendegiarren azterketari buru eman zitzaion. Euskaltzaindiak onartutako izendegi hau lehen-bai-lehen argitaratzea erabaki zen.

Alfonso Irigoyen euskaltzain jaunak, Zigoitiako euskeratik bide hartuz, azterpen bat egin zuen honako puntu honi buruz: «Sintagma plurala diribatueta».

Bukatzeko, Kepa Enbeita euskaltzain laguntzaileak aintzin-asmo bat irakurri zuen urkubustaitzoki toki-ezenel buruz.

Hurrengo igandean, berriz, apirilaren 29an, Sabando-ko herrixkan J. Bta. Gamiz-i gorazarre bat eskaini zitzaion.


Eguerdiko hamabietan, Meza konzelebaturua euskeraz, herriko elizan, Coro Arabak parte hartuz. Ondoren oroitari bat agertu zen. Bertan zeuden Arabako Gobernadore, Diputazioak Lehendakari, zenbait euskaltzain, euskaltzake, Sabandoar, albo-hari eta Gasteiztik etorritako makina bat jende. Alta Goikoetxea-Maizak hitzaldi egoki bat egin zuen, arabar honen bizitza eta lanak aipatuz. Arabako Diputazioko txistulari eta dantzariek beren saioekin gorazarrezko jaialdi hura burutu zuten.

(Euskaltzaindiaren Prens Bulegoko Adria)



Pastoralaren ANTZOKIA. (AIDA ARGAZKIA).

"ZANTXO AZKARRA" Pastoral Xiberoan Euskal giro indartsua



"ZANTXO" Pastoral ALZAI'EN. (AIDA ARGAZKIA).

Xiberoa, euskal zazpi probintziarik txikiena degu, baina kultura sailan ez orregatik txikiroa, aberatsenetakoa baizik. Pastoralak, antziaz gaita antzerki zarrak ementxe bakanrik egiten dute.

Jorralaren 29'an, Aizay izeneko errian, egin dute azkena. Egun eu, aundia izan da Euskaltzaindiaren, aundietako bat. Berriz eango nuke, lasai asko, zerbait gertatzen ari zaigula gure Xiberoa'n. Esnatu zaigu ta bera nortasunaren konfientzia sortzen ari zaio. Egun ontan indar aundi bat agertu da Xiberoa'n. Egan dan urtean, Maskaradak ikustera-koan, esan nuan, Xiberoa'ko euskal nortasuna esnatu zala, aur berriz Pastoralak ikusi ondoren esango nuke, Xiberoa'n euskal indar bat sortzen ari dala. Zergatik oriz? Lenengo Pastoralak, «Chiquito de Cambo», Maule'n ikusi nuen. An oartu nintzan lenengo aldiz zer zan Pastoral bat. Alaitasuna ta gogo ona agertzen zuten mutilak. Ango enparantz ederra erdizka bete zan. Urrenge Pastoralak ikusten ligit giffen. Uda zan ta arrotz asko zeuden. Egan genezakean, arrotzentzat egia zala. Aurtan berriz, toki danak bete ziran, arrotzik etzegoen, euskaldunetz beterik arikiu genuen. Gizaseme askok zutik egon bear. Xiberoa'ra Pastoralak ikustera, egoaldeko euskaldunak eruz joan ziran.

Antzerki ondo antolatua zegoen. Ikusten zan lana aundia egin zutela. Jantziak danak berriak. Etziran nolaini moldatu. Ura dana, Alzai'ko gazten lana zan. Indargileak berriz bertako apezka argia ta euskaltzale jatorra.

Ezin aztu berriz, erri ontako euskaltzaleak sunak irauin ba du, zor aundiak ditula, Jauregiberri andereekin; auxe degu gure Euskaltzaleko Amak. Larogaita bost urteko andere au, ia egunero aurreri euskerak ematera etortzen zan. Berari esker bertako gazten ezañetan bizirik dago gure izkuntza zara ta gaur bere ikasle gazte oiek euskaltzaleak ditugu. Erri ontako neska bat da, Maule'ko ikastolaren lenengo andereñoa. Emengo gazteak joan dan udaran, Putxulu apaizarekin

euskal kulturari buruz lan ederra egin zuten. Nabari da indar berria.

Pastoralaren egilea aipatu bearra degu: Pierre Bordazarre, «Etxaun», txilari trebea ta Pastoralen idazlea. Baserritarra da ta erriko gizona, iruerriko semea. «Agur Xiberoa» danak ezagutzen degun abestia, berak egia da.

Orain arte beste Pastoraletan, galari ondo jarraitzeko, paperko batzuek ematen zizkiguten. Aurtan berriz, liburu baten antzekoa eman digute, oso apaña ta ondo argitaratua, ziberotarrez idatzia, erderaz ta frantzesez itxutua.

Antxoki gaifean, txirula jotzen, gure Etxaun pozarekin ezin egonik, begiak diriratsut ikusten nuen. Egun ontan, milaka gizaseme bere Pastoralak ikustera etorriak aurrean zitula, nai ta naiez, Xiberoak indar aundi bat artzen zula, aitortu bear. Ta xiberotarrentzat, Etxaun iturri bizi bat izaki.

Guk atsai de zoragarri bat igaro genuen, giroa alaxekoa zalako, baita ere Xiberoa zuzperten dijakigulako.

Gaur euskaldunak ba daki zer dan Pastoralak, antzerki zara, olerkia, abestia ta dantza. Aurtengo gala berriz, Naparroa'koa; gure Santxo Azkarraren bizitza. Edestiari buruz egiten dituzte utsune galantak; Santxo Azkarrak ta Santxo Abarka alkarrekin agertzen dizkigute. Ori dana erriari bost eñola. Euskal giroa nabarmentzen zan eta gizon baten kezak agertzen, ona ta txarra bere bizian beriketen alegintzen zalarik, nabarmentzen. Gizon soñlarentzat naioka.

Gizaldi ta gizaldietan, Xiberoa n, Pastoralak, erri kultura sendotu dute ta euskal nortasuna agertzen lagundu. Ortxen landu dute izkuntza. Izkuntzari buruz Pastoralak Xiberoa'n iturri berexi bat izan da.

Orrelako gauza ederren bitartez beren izkuntza ta nortasunari eutsi diote. Gure txalo beronenak, Alzai'ko erriari ta Etxaun gizon argiari.

LATXAGA

LOS ANGELES-eko Aldizkari zaharretik geiago (VII)

1893-urteko ESKUAL-HERRIA estekarit zenbait berri intresgarri sartuko dugu berriz ere, California-ko berri zahar horiek dakigulako gogotik irakurtzen dituztela nazar askok.

6-garren Numero hortan, inglesez, alemanez eta hemengo erdaraz ere, kasatari nagusiak lehen orrialdeburuan jerra hauek ezartzen dute:

«El único periódico Bascongado publicado en la América del Norte. «Parece (aparece) en LOS ANGELES, California, el sábado de cada semana».

Abutuaren 19-ko numero hortan, Andedena Maria Abutukoari, GOYTINO jaunak bertu hauek dedikaten diozka:

«Norat zoaz Oh Biryinal Gu utzikan, — Izar ederrez zure soina — Apeindurikan? Et-anguruez, zergin berna — Goratutikan? — Ba badakigu, ama onal — Norat igan zan, Lagun gaitzazu, Erreguinal! — Zeruturikan, (J. P. Goytino. Los Angelesen).

«Han Hemenka. «Bihar izanen dire (1893-VIII-20-a) Frantzia guzian deputatuen izendatzea (Elektzio-neak). Ah! zer tarrapatat eta zer nahaskeriki! Agian gure herriarrek zerbitzari leial eta fidelak hautatuko dituzte Euskaldunen abantailatan Parisen kordakutako (saiatuko) direnak... Euskaltzaindiak bidezko agian bazterre-erret emanen dituzte, lehena-goko idera zaharrak, eta oroituko, Frantzia bako beharretan dela, eta Kanbara-rat behar dituztela deputatu zu-

hur eta ezagutuak igorri, Euskaltzaindiak ahal bezainbat fagoratuak dute guzizonak. «Errepublikan Frantzia, ongi segurturik yarra da, eta Gobernamentuak ontuko dute guzizon batzu, Parisera: igortzea da, bozemaile guzilen eginbidea, Deputatu guetia, guzizon xuxena baldin bada, herriko sinesteak errespetatzen dituenak, erlisioneak ohoratuz, zer importa du gorria edo xuria izanik ere?»

«Segurki ezdugu erran nehi, behar direla bozak nola nahika eman, helitzen den lo-nes edo Piarrea-tzar izendatuz. Ez, ezdugu nola pensatzen! Baina bozemaileak oroituko dire, noizpait Gobernamentuaren genik zenbat fagore beharko dutela behar bada, eta fagore horiek erre-xago erdietsiko direla, Gobernamentuaren kontra yarrak ez diren Deputatuen ganik. Ezda Doktor izan behar presuna bat gauza ximpla horeen konprentitzeko!

«Gure Euskaltzaindiak herri-tar aintzek uste dute, Errepublikan berenaz Goberna-mendu tzarra dela eta erlisionearen etsaia. Baina ba-dire uruski Errepublikan onak! Huna hemen gure Erresu-man dugun gobernamentuak; denek libertate osoa dugu; elizartat joan nahi duena libro da. Gure Artxapezpiku, apez-piku eta apezak denak, Erre-publikanoak dire eta ezukete deusetan Gobernamentu-aren kanbloa ikusi nahi.

«Legue a ren aitzinean de-nak igual gari; gure enplea-tu guziaz guk deitzen ditugu (izendatzen eta aututzen), Presidentaren ganik hasz, eta ez guirelarik ofiziale (en-pleatu) batez kontent, ondo-ko boz-emailetan (Elektzio-nean) promentatzara igortzen

dugu. (a paseo).—

«Badakigu Frantziako Erre-publika ezdeia perfeta —ez-da perfezionerik mundu hun-tan— baina makurrak ezdi-re xuxenduko, Parisera igor-ririk, denak azzp-gotiti exa-ri nahi dituzten guzizonak. Ezduke orai Frantziak guetia zibila batzik eskas! Beti arranguratzera ezdu balio!

«Bertzenaz ere, non dire frantxi-mant horiek baino na-haslagorrik? Hirur franteses di-jen tokian biga badire baten kontra; ezduite elgar aditzen ahal, etsaiaren aitzinean bai-zik (Hemen bezalatsu!). Or-duan ezda estonagarri (arri-garri) txant guziez depexetan (berrietan) leitzen badu-gu: ...Frantziako Ministerio-erori da: President Carnot nardatua daga. Beldur dire Erreboluzio-nea hasiko den!

«Iduri du Gobernamentuak beti zaku-polibora baten gainean jarria dela, jautzian joa-tenko prest presta. Ferra ez-ten Gobernamentuak legue tzarrak maiz eguiten ditu, eta denez beldur iduri du, etsaiez inguratua den presu-na bat bezala.

«Baina Frantzia ere gau-zak kanbiatzen asiak dire. Aita sailduaren boza dute katolikoez aditu, eta etzuela ballo Gobernamentuak guetia eguita konprentitu dute. Hortakotz, biharko elektzio-nean uste dugu, gure herria-reek Deputatu guisakoak hau-tatuko dituzten, Frantziako Gobernamentuarekin bakean biziko direnak.

(Garai eta denbora hartan prezisiki, Aita sailduak kato-likoari gomendatu (obeki esan agindu) zitoten, Fran-zia-ko Errepublikan onart zezaten, katolikoei gelaenak, su eta gar horren kontra zeudelako).

A. APAT ETXEBARNE

"SIOUX" Piel Roia-k eta Marlon Brando

Sioux indioek munduan sortu bide duten maite-giroa edo sinpatia, gure euskaldunok, hemen, etxean bederen, sor bagenez!

Marlon Brando bat eta bafede gure alde ere jokatzeko!

Zinema-artistak zaputzu duen sari galanta, Norte-Amerikanok Sioux indioei egiten dizkieten jakingabeak nabarmentzeko zaputzu duela, bidia bait da. Bejondeizula Marlon Brando jaunak. Gure Herrian ere zu bezalakoa bat baita! Von Bilbao Ipar-amerikar irakasleak esan berri duenez, Ipar-Amerikan, Herri txikien alde, izugarriko sinpatia sortu omen da.

Aparteko romantiku giroa sortu!

Sioux indio larru gorri edo pieles rojas-en ezbeharrik, gu, behintzat, biziki ukitzen gal-tue. Haien antzeko Herri txiki dohakabea bait gara izan.

Bestalde, euskaldunok, Sioux indioak hain arrotz jo ote ditzaigeko?

Lerru gorrikoen mintzaira eta euskalduno-na, eldetakotzat ez ahal zituzten jo bada, Charency kondeak eta? (Teori hoiak gero-go geurtutak izango baziren ere).

Bitxigoi dena. Indioen eskualdera heldu zen euskaldun prinzeza ere izan behar omen du. Aita euskaldun eta ama piel roja zituen prinzeza xoragarria. Ala aita piel roja, eta ama euskalduna ote zituen! Paperak ez bide daude garbi!

Geure Herri triste honen egoeran, zein Marlon Brando kupiduko ote?

Urak leporaino inguratzen ari bait zaizkio Euskalari. Akabe-latzeko zorian bait da. Hu-

ren-en bertan, nexka bati euskeraz egin, eta: «No entiendo el vasco» erantzuna. Vascoen-eko ere ez; vasco esan behar, Jainkoak nehi bazuen.

Eta berriki, Regionalismoari buruz López Rodó-k, Sevillan, heriatu duen bideak; ez dirudi gu etsipenetik begiratzeko zuzenena. Okerrean ari ez bait naiz.

MIXTO-KAJAK BADEREN

Gaurko egunean nexkek direnez gero pi-pa hartzailekik «gartsuenak»: mixto kajetaz ezin bala gindezke Euskararen alde?

Mixto kajetaz ez ahal dire bada ballatzen, gal-zorian dauden xori eta pisti erraroen be-ri emateko?

Beraz, mixto kajetaz bala gaitzen, euskararen igal-zoria nexkei adieratzeko, pipa hartzera dihozazenean.

Mixto kajak, Ama-Euskararen aurpegi kupi-garria ekar lezake, eta oinean, idazkun edo leyenda hau: «Alaba: kaja hontago mixto buru bakar baten FOSFOROa baneanan, ez nindukenan ukutzen nauman bezala ukatuko, ez. Ene azal oriztat eta itxura pobrez, saltzen ahal naun? Esker gaitzoko alaba!

Ba, jakin ezan: ene gogo edo arima, betiko gatzetasunean eta mardutasunean zegoen. Ni bezalakoa amarik, inon bestetan, ez dun aurkituko. Jakinen gainean baagoke».

Euskal alaba ergelek, euskara, GEURE XORI BAKAN HORI, lepo egin (degollar) lezaten baino lehen, Rodriguez de la Fuente bat sortuko ez ote?

PREMI-IXURKO

